

KILOMETROAK



Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS

Nahiz eta eguraldia makala izan, guneez lepo eginda bukatu zuten.



Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS

Indarrak berreskuratzeko modurik onena ardo baso bat edatea da.



Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS

Ikastolaren alde lan egin dutenei omenaldia egin zitzairen.

APUNTEAK

Txondorrek ikusmina sorrarazi zuen

Joxe Pagaldaik, Bolibarrek, seigarren gunean eraiki zuen txondorrek ikusmina sorrarazi zuen. Lagun asko hurbildu zitzaizkion nola egin zuen jakiteko asmotan. 3.000 bat kilo egur erabili zituen egiteko eta bertatik 500 bat kilo ikatz ateratzea espero zuen. Aste osoa eman zuen bertan txondorra prestatzen. Pasa den astelehenean, asteartean eta ostegunean ikasleen bisita izan zuen, ia 200 umeren bisita, hain zuzen ere. «Oso emozionantea zen», adierazi zuen. Egunotan, txondorretik gertu zegoen txabolatxo batean lo egin du. Berarekin batera, Emiliano Royo lagun mina zegoen. Hura ere txondorretan aditua. «Lauzpabost hilabete jarraian eman izan ditut ikatza egiten mendian. Sei edo zazpi txondor egiten genituen aldi berean, 7.000 eta 10.000 kilo egurrekoak», azaldu zuen.

Behi, ardi eta txekorren artean

Euskal Herriko mendiek inguratu zuten ibilbidea. Horiek izan ziren, alegia, «Kilometroen zaindaria». Euriaz aparte, natura izan zen protagonista. Antolatzaileek zuhaitz eta landareetan beren izenak ipini zituzten. Bien bitartean, behi, txekor eta ardiek beren ohiko lasaitasuna galdu eta milaka euskaltzaleren urratsak entzun eta ikusi zituzten atzokoan.

Agintari eta politikari andana bildu zituen hasiera ekitaldiak

A.L.

ARETXABALETAKO

Alberto Iñurrategik eta Jose Antonio Altunak goizeko 10.00ak aldean eman zioten hasiera ofiziala ibilbideari Arizmendi-Basabeazpi gunean. Ordubete lehenagotik jada jende andana zebilen harat-honat azken uneko ukituak ematen eta dena prest zegoela ziurtatzen. Umeak pozaren pozez zeuden. Horieta batzuk «Oia» aurtengo Kilometroetako abestia entseatzaren ari ziren buru-belarri. Irakasle, guraso, eta aiton-amonak ere bazeuden beraiekin batera dantzari eta kantari. Ilu-

sioz beterik, primeran irudikatu zuten «Oia», xaboi burbuilen eta bildutakoen txalo artean.

Halako jaialdietan ohikoaenez, politikari eta agintari ugari bildu ziren atzokoan. 9.00ak aldera hasi ziren iristen Basabeazpira, Arizmendi Ikastolak Aretxabaletan duen egoitzara.

Bertan bildu ziren, besteren artean, Lakuako Kultura eta Hezkuntza sailburuak, Miren Azkarate eta Tontxu Campos, hurrenez hurren, Begoña Bilbao, Gasteizko Legebiltzarreko presidentea eta Joxe Joan Gonzalez de Txabarri, Gipuzkoako diputatu nagusia. Joseba



Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS

«Eskolak euskaldundu behar du», eskaera Camposi.

Egibar eta Juan Mari Atutxa (PNV), Martin Aranburu (EA), Karmele Aierbe (Batasuna), Aintzane Ezenarro (Aralar), Antxon Karrera (EB), eta Xabier Mendiguren (Kontseilua) ere hantxe zeuden. Eta nola ez, bai-larako alkateak; Arritxu Oliden, Aretxabaletakoa, Ignazio Lakunza, Arrasatekoa, Juan Carlos Bengoa, Eskoriatzakoa eta Jose Ramon Perez, Leintz Gatzagakoa.

«Arizmendi sekulako ahalegina egiten ari da Leintz haran honetan kalitatezko hezkuntza eskaintzeko. Gaurko jaiak erakusten digu etorkizuna elkarlanari esker erai-

kitzen dela. Arizmendi bera elkarlanaren fruitua da», adierazi zuen Tontxu Campos sailburuak. «Gure hezkuntzak arrakasta izateko familia, eskola eta gizartea uztartu behar ditu. Hori da gure erronka, gaineratu zuen.

Miren Azkarate ere il-do berean mintzatu zen. Camposek esandakoaz gain, euskararen erabilpena sustatu behar dela helarazi zuen.

Karmele Aierbereren us-tetan, aldiz, azken urteotako hizkuntza politika «askieza da ez baitu balio izan euskararen normalizazioa lortzeko» eta hezkuntza sistema propioa aldarrikatu zuen.